

HITZ BITAN

TXIRRINDULARITZA

**Apirilaren 8tik 12ra
jokatuko da aurtengo
Euskal Herriko Itzulia,
eta Zallatik irtengo da**

Aurtengo Euskal Herriko Itzulia datorren apirilaren 8tik 12ra jokatuko da. Zallatik abiatuko da (Bizkaia), eta, guztira, 741,2 kilometro egin beharko dituzte txirrindulariek. Itzuliak bost etapa izango ditu, azkenekoa bi sektorekoa, eta Elgoibarko Azkarate gainean amaituko da, Gipuzkoan.

ESKIA

**Positiboa eman du
Salt Lake Cityko
Jokoetan slalom
proban brontzea lortu
zuen eskiatzaileak**

Alaix Baxter Salt Lake Cityko Olinpiar Jokoetan slalom proban brontzea irabazi zuen eskiatzaile eskoziarrak positiboa eman zuela jakinarazi zuen atzo Erresuma Batuko Olinpiar Batzordeak. Bertako arduradunen arabera, metanfetamina —*speed* ere esaten zaio— da Baxterri atzemandako substantzia.

IZOTZ HOCKEYA

**Txuri-Majadahonda
eta Gasteiz-Puigcerda
kanporaketak
Espainiako Kopako
final-laurdenetan**

Datorren apirilaren 13an eta 14an Jacan edo Bartzelonan egingo den izotz hockeyko Espainiako Kopako azken faserako final-laurdenetako zozketa egin zen atzo. Hala, Txuri Urdinek Madrilgo Majadahondaren aurka jokatuko du. Gasteizek, aldiz, Puigcerda talde kataluniarra izango du aurkari.

SASKIBALOI-A-NBA

**Portland Trail Blazers
taldeak hamargarren
partida irabazi du
segidan**

Sasoi ezin hobean dagoela agerian utzi zuten atzo Portland Trail Blazersek, Sacramento Kingsi 107-95 irabazita. Atzokoarekin jadanik hamar partida irabazi ditu segidan Portlandek. Davis, Stoudamire, Wallace, Pippen eta Pattersonen lana aipagarria da, guztiek 10 puntu baino gehiago lortu baitzituzten.



JOSEPH BARRAK / EPA

Palestinako taldeak, futbol txapelketetan

Palestinako Al Aksa futbol taldea Kopa irabazleen Arabiako Txapelketan parte hartzen ari da. Herenegun Sudango Al Hilal taldearen aurkako partida jokatuko zuen, Tunisian. Sudango taldea zen irabazteko faborito nagusia, baina jokalariek palestinarrek, bikain jokatuz, Al Hilal taldearen gol aukera guztiak ezerezean utzi zituzten.

Azkenean, hutsean amaitu zen partida. Irudian, Mohammed Al-Jayesh jokalaririk palestinarra agertzen da erdian, Al Hilal taldeko bi jokalariek aurrean dituela.

ATLETISMOA. Hilaren 30ean egingo da, arratsaldeko 16:00etan; mila lagun inguruk parte hartzea espero da

**Diego Garciaren omenezkoa izango da hemendik
aurrera Azkotia-Azpeitia maratoi erdia**

Julen Etxeberria | DONOSTIA

Iazko martxoaren 31n entrenatzen ari zela bihotzekoak jota hil zen Diego Garcia korrikalari azkoitiar kutunaren omenezko lasterketa izango da hemendik aurrera Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia. Hala, aurtengo lasterketa aurkezteko Donostian atzo emaniko prentsaurrekoan probako antolatzaileek azpimarratu zuten, *Diego Garciaren oroimenez* leloa izango du lasterketa horrek hemendik aurrera.

Datorren martxoaren 30ean, arratsaldeko 16:00etan jokatuko da aurtengo Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia. Lasterketako antolatzaileek adierazi zuten, «inoiz baino arazo gehiago» izan dituzte probako eguna aukeratzeko. Hainbat arrazoiengatik, ezinezkoa izan zaigu eguna aurreratzea, baita atzeratzea ere. Ordua, aldiz, apropos jarrita dago, oporrak dituztenek lasterketa ikustera hurbil daitezkeela uste baitugu».

Diegoren hutsunea

Ramon Goenaga antolatzaileetako batek azpimarratu zuenez, Azkoitia-Azpeitia lasterketa ez da inoiz berdina izango «Diegorik gabe», «berak ematen zion ukitu hori» faltako delako. «Antolaketan jarduten dugunoi



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Probako antolatzaileak, Diego Garciaren arreba tartean dagoela.

Diegok erakutsitakoa aurrera eramatea egokitu zaigu: lasterketa polita antolatzea, bai eliteko kirolarientzat, bai herri korrikalarientzat, bai Azkoitira eta Azpeitira joaten diren lagun guztientzat. Azken finean, Diegok hain ondo zabaltzen zekien laguntasun sentimendua lau haizeetara hedatzea», esan du Goenagak.

Lasterketako antolatzaile guztien izenean, halaber, Goenagak nabarmendu zuen Die-

goren hutsunea izugarri nabaritzen dutela, «haren profesionaltasuna, haren umorea eta, batik bat, haren gizatasuna». «Urte gogorra izan da, baina errealitatea onartu behar da, Diego ez dago jadanik gurekin. Haren oroitzapena indartzea eta suspertzea da gure lana, eta horretarako lagun ugari gaudere prest», esan zuen Goenagak.

Santiago Perez Diego Garcia zenaren entrenaileak, aldiz, Azkoitiko irteeran izango diren

RAMON GOENAGA

Antolatzailea

«Diegoren hutsunea izugarri nabaritzen dugu oraindik. Haren oroitzapena indartzea eta suspertzea da gure lana»

eliteko atleten berri eman zuen. Alejandro Gomez, Alberto Juzdado, Jose Manuel Garcia, Javier Cortes, Ramiro Moran, James Moiben, Kamel Ziani, Hicham Chatt, Ivan Sanchez, Asier Zarraga eta Asier Cuevas dira gizonetako korrikalari aipagarrienak. Emakumezkoetan, aldiz, Rocio Rios, Eva Sanz eta Estibalitz Urrutia. Ildo horretatik, Perezek esan zuen parte-hartzaileen zerrenda itxi gabe dagoela, Fila klubak bi atleta bikainen parte-hartzea ziurtatu baitu.

Mila lagun ingururen parte-hartzea espero da, eta antolatzaileek garbi utzi nahi izan zuten atleta herrikoiek «leku berezia» izango dutela, «Diegok horrela nahi zuelako, eta bera herrikoien erregea izan zelako».